



Baiona - 2006ko maiatzaren 6an

«Bide batez»

Aurelia Arkotxa



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Ez dun fitsik ulertu, bizitzea ez dun hori, egunero tarrapatakan ibiltzea, handik hona, hemendik hara, gelditu gabe. Erokeria hau nehoiz bururatuko ez balitz bezala eginez. Hobe huke egun hasteari so egitea. Beha kontxo ! Ireki itzan begiak eta ikus nola ubel ilunetik blura eta horira iragaten den emeki-emeki zerumuga goiz-goizean.

Uler ezan, zer demontre, begi bistan gertatzen ari dena ! Ergeltzen ari garela, ari gaituztela. Zerbait badela hemen zuzenki ez doana.

Primum vivere deinde philosophari. Entzun itzan biziaren asotsak. Adibidez, nola txoriak gaua oraino gau delarik, zirulizuli apal eta bakanez elkarri deika hasten zaizkion.

Ohart hadi ez dinadala «kantatzen» ari direla erraten. Ez baita hala. Eguzki sortzearekin pizten baitzaie gosea. Imajinatzen dinat goizero eguneko egitarauaren prestatzen ari direla : non lor bazka, nola... Ez hadila itsu ibil hirietan. Har ezan denbora. Gauza guziendako behar baita denbora. Ibil hadi oinez. Hire bidaietan ez ezanala ahantz hire lekuaren ere deskubritzea. Sekulan ikusia ez bahu bezala. Kurriz ibiliz anitz gauza ulertzen ditun... Lehengo haur libreak non ditun ? Eskolara joateko oinez ibiltzen zirenak ?

Beribila bazter dezagun ahal bezainbat. Suntsituak garen itsukeriatik jalgi gaitezen, ohartzen bagara gure inguruan iragaten ari denaz, azken xantza bat geldituko zaigun salbatzeko...

Ikusten dinat hire begietan ez naunala sinesten.

Uste duna hire burua ez dunala irriskuan ? Alta, Fausti gertatu zitzaiona ari zaigun gertatzen. Gure arimaren galtzeko irriskutan gaitun zinez.

Uste dun gehiegizkoak erraten ditudala ? Sorgorra haiza, edo itsua ?

Hoa kanpora, ikusiko dun ez naizela ametsetan ari. Ez dun ikusten gaurko haurrek (teknologiak eta publizitateak estekatuak dituzten haurrek), beren bideo-jokoetan iraulkatuak direnek, birtualitatea eta errealitatea nahasten ari dituztela... Jaten duten haragi pikatua, beharbada sekulan argia ikusi izan ez duen zerri-esklabo batetik heldu dela nehork ez diela erraten...

Ez ere indioiloek ez dutela supermerkatuetan saltzen dituzten erreki borobilduaren forma... Nehork ez diela bat zinezkoa, lumazkoa, erakutsi izan... Fruituak arboletarik nehoiz ez dituztela hartu eta jastatu : bakarrik borobilegiak, gusturik gabekoak diren tomate eta sagarrak dituztela ezagutzen...

Ez ezanala ahantz, karrikan habilela, noizbehinka goiti behatzea.
Ikusiko ditun, haizea azkarki dabilen egun horietan, usoak hegalak zabal eta geldirik, aireak badaramatzala, eta sugandilak, berotzen duen egun horietan, lorategi bateko pareta gainean papoa eguzkitan, begiak hetsirik.
Ohart hakie halaber karrikako balkoietan diren baratze ñimiñoiei.
Bizpahiru loreontzi han, pinu ñaño bat hemen. Horra doazen beharbada erleak, eta liztorrak ere bai.

Ez ezanala ahantz hori, astia, hartzeko egina dela.

Ikas ezan airearen usmatzen, mendiaren bizkarrean hedatu den lainoaren erranahiaren jakiten, edo itsasotik urruntzen ari diren antxeten itzuli-mitzuliek gaztigatzen dutela euria.

Ahantz ezan telebistako meteo. Dena den, erokeria hau noizbait bukatuko baitzaigu.

Ez ez, ez naun « gure heriotzeko orenaz » mintzo... Petrolioaz ari naun...

Ulertu dun orain?


emaitzak www.eke.org atarian

9

- * Testuak
- * Sariak
- * Argazkiak...

Euskal kulturaren web ataria

AKE .ORG



AKE .ORG Euskal Kulturaren ataria

Albisteak | Agenda | Loturak | Argazkiak | Extraneta

Bilatu

Français • Español • English

Euskal Herria | **Euskara** | Kultura | Ondarea | Kultura eragileak | Euskal Kultur Erakundea

Euskararen historia
Hizkuntzalaritza
Soziolinguistika
Erakaskuntza
Euskaraz bizi !
Euskarazko komunikabideak
Seinaletza elebidun publikoa
Bizi soziala
Hezkuntza eta aisialdiak
Euskarazko animazioak CETL hitzarmenaren barnean
Errobi mintzo : ingurumen heziketa euskaraz
Euskal kultura mediateketan
"Bat-Biga-Hiru" programa
"Hitzaditza", diktaketa kulturala
Itzulpenen datu-basea

Hemen zauden: [Euskal Kultur Erakundea](#) > [Euskara, gure hizkuntza](#) > [Euskaraz bizi !](#) > [Hezkuntza eta aisialdiak](#) > ["Hitzaditza"](#), diktaketa kulturala > Hitzaditza 2006 : idazleak eta testuak

> Hitzaditza 2006 : idazleak eta testuak

Idazleak	Testuak
Eneko Bidegain  31 urte ditu kazetari lapurtarrak. Uztartitzen sortu zen eta Berria egunkarian egiten du lan, egun. Bertso programa bat egiten du Gure Irratian. 2005ean bere bigarren eleberria kaleratu du. Urte hartan Bertsulari Txapelketa Nagusian epaile izan da ere bai. Harremanetan iartzeko... (argazkia : www.sautrela.com) Nobelak <i>Anbroxio</i>, 2002 (Elkar) <i>Mahatsaren begia</i>, 2005 (Elkar)	Izenburua : Maila : Errexa
Aurelia Arkotxa  Euskara eta euskal literatura irakaslea Bordale 3ko Michel de Montaigne unibertsitatean. Ikertzailea IKER-en. Lapurdum agerkariaren zuzendaria. Euskaltzain urgazlea. Kronika idazlea Berria egunkarian. Harremanetan iartzeko... (argazkia : www.sautrela.com) Nobela <i>Septentrio</i>, 2001 (Alberdania) Poesia <i>Atari ahantziak</i>, 1993 (Pamiela)	Izenburua : Maila : Errexa

Hitzaditza 2006

Noiz :

- 2006ko maiatzaren 6an, larunbatez, 9:30etan

Non :

- Baionako IUT-en (Jean Darrigrand etorbidea, 3)
- [Ikus kokapen planoa \(Irudia GIF - 80 Ko\)](#)
- [Kokapena \(Tagzaniarekin\)](#)

Izen-emateko epea eta aukerak :

- 2006ko maiatzaren 3a
- EKE : 00 33 (0)5 59 93 25 25
- AEK : 00 33 (0)5 59 25 76 09
- [Formulario elektronikoa](#)

Antolatzaileak :

- Euskal kultur erakundea
- Iparraldeko AEK

Xehetasunak

 [Prentsa-txostena](#)



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

